

Laudio, 2023ko abuztuaren 4an

Barrakak abuztuaren 11n jarriko dira martxan

Abuztuaren 22an eta 28an etxeko txikienei eskainiko zaie eta barrakek 1,5 euroko kostua izango dute

Barrakak Laudioko jaietan izango dira berriro, abuztuaren 15etik 17ra eta 23tik 27ra. Oraingoan, zazpi atrakziok hartuko dute Odeibar aparkalekua eta Zumalakarregi etorbidearen zati bat (Baiasko bidegurutzetik Eroskiko biribilguneraino). Hala ere, azokariak ez dituzte atrakzioak martxan jarriko abuztuko 11ra arte. Eta herritarrek atrakzioez gozatu ahal izango dute abuztuaren 28ra arte.

Gainera, aurten txikiei bi egun eskainiko zaizkie, abuztuaren 22a eta 28a hain zuzen ere. Egun horietan barraken kostua 1,5 eurokoa izango da. Gainerako egunetan 2,5 euroko kostua izango dute.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Udalak bilera bat egin zuen uztailaren 27an inguruko bizilagunekin haien iritzia ezagutzeko eta barrakei buruzko akordio bat lortzeko. Bileraren ondoren, bizilagunek, Udalak eta barraketako arduradunek jaiegunetan 01:30etan jarduera etetea erabaki zuten, eta 23:00etan gainerako egunetan. Atrakzioen musikaren

bolumena ere jaitsi egingo da jarduera gelditu baino ordubete lehenago.

Jaien edizio berri hau talde guztientzat pentsatuta dago, beraz, hiru egunetan - abuztuak 20,22 eta 28- barrakek musika eta soinu zaratatsurik gabe funtzionatuko dute 17:00etatik 19:00etara autismo-arazoak dituzten haurrentzat, zaratak bereziki eragiten baitie.